PREGUNTAS A
**NEREA MUJIKA**

# "Durangoko Azoka es creación, fiesta, identidad y también reflexión"

*Nerea Mujika es desde 2003 la presidenta de Gerediaga Elkartea, organizadora de la Feria del Libro y del Disco de Durango.*

**DURANGO** – En 1965 se fundó Gerediaga Elkartea, y el 30 de octubre de ese año se llevó a cabo la inauguración de la primera Azoka, que contó con 25 puestos en el pórtico de Santa María. Basta con mencionar que en la pasada edición Landako Gunea acogió cerca de 250 stands para percatarse de cómo ha crecido esta cita.

**¿Cómo está viviendo el 50º aniversario de la Azoka?**

—Los números y las efemérides tienen importancia porque te hacen pensar que uno mismo, la Azoka y Gerediaga están hoy aquí porque ha habido muchas personas que anteriormente han realizado un recorrido impresionante, en tiempos mucho más duros que los actuales.

**¿Qué significa para usted Durangoko Azoka?**

—La Azoka es creación, reflexión, identidad, fiesta. La Azoka es pasado, presente y futuro.

**En esta edición van a realizar muchos guiños al pasado...**

—El 50º aniversario te hace reflexionar en que estás aquí por un pasado, pero miras atrás con la intención de coger fuerzas para seguir hacia delante. Deseamos que esto siga adelante, fortalecido, con la línea que estamos manteniendo en los últimos años.

**¿Para ustedes no ha supuesto un extra de trabajo esta fecha señalada?**

No ha sido el mismo trabajo, hemos trabajado mucho, por ejemplo en el libro. Pero lo hemos hecho de forma discreta, sin grandes pompas ni cohetes. – *Jon Baraja*





Agustin Arrieta, atzo, Donostiako Alde Zaharrean.

# Giza harremanak, 34 istoriotan kontatuak

## Irakurlearengan sentimenak sortu nahian, 'Irlak' ipuin liburua plazaratu du Agustin Arrietak

*Marta Esnaola*
*Ruben Plaza*

**DONOSTIA** – Hainbat filosofia liburu idatzi baditu ere, Agustin Arrietak egin duen bigarren fikziozko lana da *Irlak*. Guztira, 34 istoriok osatzen dute egile errenteriarraren ipuin liburua, eta guztiek giza harremanen inguruko gaiak jorratzen dituzte, bakoitzak forma bat hartzen duelarik. "Fikzioaren jokoa sortzeko idatzi dut liburua, irakurlearengan kezka, oroimena, adimena eta sentimena sortu nahi ditut, besteak beste", adierazi zuen atzo Arrietak Erein argitaletxearekin plazaratu duen liburuaren aurkezpenean.

Idatzi zuen aurreko ipuin liburuan bezala *–Istripuak* (2008)–, era guztietako narrazioak aurki daitezke lan honetan. "Ipuin nahiko luzeak daude, baina baita motzmotzak ere, orrialde bakarrekoak", azaldu zuen idazleak, eta oso gai ezberdinez hitz egin duela gaineratu zuen. Adiskidetasuna, maitasuna eta zahartzaroa bezalako gaiez mintzatu da liburuan. Adibidiez, *Museoa* eta *Trena* izeneko ipuinetan, zientzia-fikzioa da nagusi; *Koadrilakoak* istorioan memoriak eta hemerotekak lan handia egin dute, oso realista baita; *Kartzelan* eta *Irratia* ipuinetan umore beltza da nagusi; *Erretiroa* eta *Irlak* maitasun istorioak direla esan daiteke; eta *Urtebetetzea* izenekoan, zahartzaroa da protagonista.

"Estilo aldetik, aniztasuna da nagusi, izugarrizko askatasuna sentitu dut idazteko orduan, ez baitut inongo konpromisorik genero batekin", adierazi zuen EHUko Filosofia irakasleak. Hala ere, gauzei begiratzeko modu berdina dauka istorio guztietan, azaldu zuenez. "Ipuinak momentu ezberdinetan sortuak dira eta nabari da, baina hari bat dago istorioen artean", azpimarratu zuen. Gainera, bakoitza anekdota zehatz batetik sortua badago ere, unibertsal izateko ahalegina egin zuen egileak.

Adierazi zuenez, askotan galdetu diote ea filosofo izanda, zergatik jo duen fikziora, eta erantzuna argi dauka: "Auzi antzekoak adierazten ditut bi liburuetan, baina helburua oso ezberdina da; batean tesia defendatu eta argudiatzen dudan bitartean, bestean jendeak pentsaraztea nahi dut", argitu zuen Arrietak.

